

ITURRAMA BHI SAHARAREKIN PROIEKTUA

2014-2015 ikasturtean Iturrama BHI Hezkuntza Berrikuntzako Proiektu bat martxan jarriko du Elkartasun Eskolak Programaren barruan: *Iturrama BHI Sahararekin*.

Ekimen hau ikastetxean lehenagotik lantzen ziren bi proiektu batzetik heldu da. Batetik, ikastetxea 2013-2014 ikasturtetik Combinar izeneko Berrikuntza Pedagogikoko Proiektu batean parte hartzen ari da, giltza gaitasunak lantzen ikasteko. Bestetik, 2011-2012 ikasturtetik Elkartasun Eskolak Programan ere lan egiten du, ikasleengan jarrera solidarioa, gizartearekiko konpromisoa eta errealitate ezberdinekiko sentsibilizazioa bultzatzeko. Bi proiektu horiek hainbat alderdi dituzte komunean, izan ere, biek bilatzen dute hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa eta parte-hartzea; helburu nagusia da ikasleei esperientzia aberasgarriak eskaintzea, hainbat errealitate eta testuingurutan oinarrituta.

2013-2014 ikasturtean zehar klaustroaren erdiak baino gehiagok parte hartu zuen Combinar Programan, Unitate Didaktiko Integratuak diseinatzen ikasteko eta, hartara, ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzen dituztela ziurtatzeko. Aurtengo helburua Combinar Proiektuan ikasitakoa praktikan paratzea da. Horrela, *Iturrama BHI Sahararekin* Proiektuaren lehen haziak ereiten hasi da ikastetxea. Proiektu hau 3. DBHn landuko da eta ikasleek arlo bakoitzean sahararren errealitatearen inguruko prestakuntza jasoko dute. Horretarako, UDI (Unitate Didaktiko Integratua) bat diseinatu da eta bertan Mintegi bakoitzak bere esparrutik landuko du gaia, Saharako egoeraren ikuspegi global eta diziplinartekoa eskainiz.

Iturrama BHI Sahararekin gizartean garrantzia duen proiektua izan nahi du, hori dela eta, hezkuntza komunitate osoari ezagutarazi nahi zaio zer landu den eskolan. Horretarako, Aste Kultural bat antolatuko da bigarren ebaluazioaren bukaeran, gelan ikasitakoa erakusteko, erabilitako metodologia, etab. Hortaz, lehen ebaluazioan zehar, 3. DBHko ikasleek gaiari buruzko informazioa bilatu beharko dute, testuak irakurri, bideoak ikusi, eta abar. Herritartasuna eta Gizarte irakasgaietan hasiko dira lanean, ezagutza orokorrak aktibatzen, eta horrela, gainerako arloetan gaia sakonago garatzeko aukera izanen dute eta hobeki ulertuko dute sahararren egoera oro har: egungo egoera ulertzeko arrazoi historikoak, errefuxiatu kanpamentuen egoera, nutrizio arazoak, ura edangarria den, haien hizkuntza eta kultura, etab.

Proiektuak bi zeregin nagusi ditu: lehen ebaluazioan sahararren egoera ezagutaraziko da, Mintegien artean koordinatuta. Ondoren, bigarren ebaluazioan, Aste Kultural bat antolatuko da; bertan hainbat jarduera egingen dira hezkuntza komunitate osoari (gainerako ikasleak, irakasleak, senideak, etab.) erakusteko *Iturrama BHI Sahararekin* Proiektuarekin lotuta dagoen guztia. Aste Kulturalean zehar ikastetxea Saharako gauzeekin girotuko da, hango musika jarriko da, lehiaketa bat egingen da hango janariarekin, beste lehiaketa bat hango jolasekin, hitzaldiak boluntarioekin, bertan egondako jendearekin, bertakoekin, etab.